## IRUNGO ADUANA GUNEKO ELKARTE SUSTATZAILEA, S.A. (ZAISA)

### Sozietatearen izena

Irungo Aduana Guneko Elkarte Sustatzailea, S.A.

### IFK

A20084646

### Izaera

Sozietate anonimoa.

### Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

### Aurrekontu-araubidea

Ez da aplikatzekoa.

### Sorrera

Sozietatea 1983ko uztailaren 27an egindako eskritura publiko bidez eratu zen. Eusko Jaurlaritzak, 1983ko uztailaren 26ko erabakiaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena eman zio sozietatea eratzeko eskritura horretan parte hartzeko, eta 43/1993 DEKRETUA, martxoaren 9koa baliatuta, EAEko Administrazioak merkataritza-sozietateko bazkide izateko eskubideen egikaritzea arautu zen.

### Sail-atxikipena

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

### JESN

5229 Garraioari erantsitako beste jarduera batzuk.

### Helburu soziala

Estatutuak 1992ko ekainaren 27an aldatu ondoren, sozietateak honako helburu hauek ditu:

- Garraioa, biltegiratzea, taldekatzea eta logistika xede duen gune, plataforma edo terminala sustatzea, sortzea, egitea eta ustiatzea, hainbat fasetan, errepidez, trenbidez, airez, itsasoz eta hainbat garraio-modu erabiliaz egiten den garraioa aintzat hartuta. Halaber, ezaugarri horiek dituen garraiorako nazioarteko eremu bat sustatzea, egoki izanez gero.
- Lurzorua erostea eta saltzea, urbanizatzea, eraikitzea, kudeatzea eta kontserbatzea, sozietatearen elementuak zein elementu komunak kontuan hartuta, eta biltegiak, bulegoak, lokalak, aparkalekuak eta salgaien terminalei dagozkien funtzioekin lotutako gainerako instalazioak errentan ematea eta saltzea.
- Garraio-terminalean zamaketak kontratatzeko guneak sustatzea, sortzea eta ustiatzea.
- Eremu salbuetsiak (guneak, gordetegi frankoak, aduana-gordetegi publiko eta pribatuak, eta helburuak lortze aldera gordetze-teknika baliatzen duten "aduanen erregimen ekonomiko" oro) kudeatzea eta ustiatzea, zuzenean edo hirugarrengoei kudeaketa-zerbitzuak errentan emanda.
- Garraio-gunea hobeto eta modu arrazionalago batean ustiatzeko, kudeatzeko eta garatzeko zerbitzu-sozietateak sortzea, haietan parte hartzea eta kudeatzea.

### Sailkapena kontabilitate nazionalean

Sozietate ez-finantzarioak.

## Kapital soziala

17.624.980 €

## Kapital sozialaren osaera

| | |
|---|---|
| Irungo Udala | % 30,91 |
| EAEko Administrazio Orokorra | % 30,77 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | % 30,77 |
| Kutxabank, S.A. | % 5,07 |
| Beste batzuk (< % 1,5)* | % 2,48 |




* *Aduana Agenteen Elkargoak % 1,48; Gipuzkoako Ganberak % 0,31; Guitransek % 0,22; Lan Kide Aurrezki Kutxak % 0,22; Banco Guipuzcoanok % 0,12, Bankoak % 0,02; eta % 0,11 akzio propioak dira.*

## Administrazio Kontseilua

Honako hauek dira 2012ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

| | |
|---|---|
| José Antonio Santano Clavero jauna | Irungo Udala. |
| Miguel Angel Páez Escamendi jauna | Irungo Udala. |
| Xabier Iridoy Olaizola jauna | Irungo Udala. |
| Manuel Leza Olaizola jauna | EAEko Administrazio Orokorra. |
| Iñaki Errazkin Vitoria jauna | Gipuzkoako Foru Aldundia. |
| Peio Gascon Arambillet jauna | Gipuzkoako Foru Aldundia. |
| Larraitz Ugarte Zubizarreta andrea | Gipuzkoako Foru Aldundia. |
| Luis Mª Marín González jauna | Kutxabank, S.A. |
| Mario Palacios Ortega jauna | Guitrans. |
| Juan Ramón Santamaría Merino jauna | Irungo Aduanetako Agente eta Komisio-hartzaileen Elkargoa. |
| Pedro Esnaola Latasa jauna | Gipuzkoako Ganbera |

## 2012ko ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena

Auditoria-txostena eta urteko kontuen laburpena, 2012ko abenduaren 31n eta 2012ko ekitaldiko kudeaketa-txostena.

## 2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

| | |
|---|---|
| Aktiboa guztira | 26.807.968 € |
| Ondare garbia | 23.938.087 € |
| Negozio-zifraren zenbateko garbia | 2.670.972 € |
| Batez besteko langile-kopurua | 4 |

## Sozietatearen helbidea

Euskadi plaza - 20305 Irun (Gipuzkoa)

## Webgunea

www.zaisa.com